

Javi Perez, futbol entrenatzailea

“Bizi izan dudana oso polita izan da”

Hil zorian zen Eibar futbol taldea liga amaitzeko bi Jardunaldi faltan zirenean, ermuar honek eta Juanjo Arrietak hartu zuten taldearen gidaritza eta bi azken neurketak irabazi ostean mailari eustea lortu dute. Eibarko oinarrizko futbolaren arduradun izaten jarraituko du nahiz eta berari aulkitik agintzea gustatzen zaion gehien.

- *Eibarko presidenteak taldea, zuen esku utzi zuenean, zer pentsatu zenuen?*

Izugarrizko erronka zen. Hil ala bizi. Bagenekien bi neurketak irabazi beharra zegoela baina aurrera egitea erabaki genuen.

- *Nolakoak izan ziren azkeneko bi asteak?*

Tentsioz eta kezkaz beterikoak. Etxekoek ere nabaritu dute eta benetan eskertzen diet emazte eta semeei, eskaini didaten laguntzagatik eta tarte honetan ulerkorrak izaten jakin izan dutelako.

- *Mailari eustea lortu ondoren, zer egin zenuen hurrengo egunean?*

Goizean goiz jaiki nintzen, nahiz eta gaueko ospakizunekin berandu oheratu nintzen. Partidua bidez ikusi nuen berriro. Atsaldean berriz Eibarrera lanea eta gauean Arraten afaria izan genuen.

- *Entrenatzaile izan baino lehen jokalaria izandakoa zara...*

Jaiotzez Soraluzekoa naiz, nahiz eta azken 14 urteak Ermuan pasa ditudan. Futbol talde askotan aritu naiz jokalaria zein entrenatzaile gisa.

Lantegia itxi zidaten eta Eibarrek bere harrobiko arduradun jarri ninduen eta benetan eskertzen diet nigan jarri zuten konfidantza.

- *Orain zure ordezkari Amorrortu dator. Penarik?*

Oso esperientzia polita izan dela ezin dut ukatu. Nire buruari ere erakutsi diot gai naizela halako talde bat zuzentzeko. Niri aulkitik agintzea asko gustatzen zait. Dena den, Amorrortu oso entrenatzaile ona da eta han izango nau bere alboan behar duenerako.

- *Eibarrek mailari eustea hainbeste urtez ez da meritu makala...*

Hala da bai. Aurten adibidez, taldea ia berria da gutziz. Jende asko dabil joan etorrian eta horrez gain, gure aurrekontua ere oso murriztu da besteekin alderatuz. Bigarren “A” maila, oso parekatua da; lehia gogorra dago maila horretan.

- *Ermuan jendeak zer esan dizu?*

Ezagunak hor izan ditut, animoak eta zorianak ematen. Batzuei telebistan edo egunkarietan ikusi ostean, aurpegi ezaguna egin zaie. Orokorrean jarrera ona agertu dute.



- *Orain merezitako oporraldia...*

San Juanetarako plana eginda geneukan. Taldeak 3 puntu behar zituen mailari eusteko baina bapatean 7 partidua galtzean, bertan behera utzi behar izan genuen. Nonbaitera joan beharko dugu nahiz eta datorren denboraldia egituratzen laister hasi beharko garen.

- *Futbolak egunean zenbat ordu lapurtzen dizkizu?*

Nik nahi baino gehiago. Sarritan konturatzen naiz futbolaz gain ez dudala besterik buruan. Oso barruan daramat nire lanbidea.

- *Gogokoen duzun entrenatzailea?*

Johan Cruyffek Bartzelonan egin-dakoa itzela izan zen. Gaur egun, Irureta esango nuke.

Astier Ibañeta

KIROL MEDIKUNTZA

Indartu

ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- ERDITZE-AURREKOA, ERDITZE-OSTEKOA
- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONZIMENDU MEDIKOAK
- ESKUZ EGINDAKO VODDER DRENAJE LINFATIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@indartu.e.telefonica.net